

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 2346

*EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 13koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen baita. Agindu horren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egiten da, 2023. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.*

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egin zen, 2023. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpen bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuak 14. artikuluan xedatutakoa betez, eskatutako laguntzak esleitu dira.

Bada, onuradunei ebazpenak jakinarazi ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2.2. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, denek jakin dezaten, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda (ebazpen honen eranskinean jasota dago). Agindu horren bidez, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzetarako deialdia egiten da, 2023. ekitaldirako, martxoaren 24ko 45/2020 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 13a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,  
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

2024ko maiatzaren 17a, ostirala

## ERANSKINA

Espedientearen erref.	Sozietatearen izena	Proiektua	Dirulaguntza (euro)
00002-ATT2023	Ribartayo SC	Sasoikako langileentzako aterpetxearen teilatuaren konponketa.	609,84